

**ELKARRI MOKOKA:** Andrea Etxarri eta Pello Azpirotz **Nor da nor?:** Argazki zaharrak

**ELKARRIZKETA NAGUSIA:** Mikel Huarte **KUXKUXEAN:** Ekaineko zorion agurrak

Ikusi  
hemen  
Mailope



[issuu.com/mailopealdizkaria](http://issuu.com/mailopealdizkaria)



## Azken txanpa, azken saltoa

Haydee Calderon (Iribas)  
Bertso berriak  
Mailoperi jarriak



Ikasturte amaiera iristear da eta Ibarberri ikastetxean Kultur Astearen baitan hainbat jarduera egin dituzte, jolasak, antzerkia, hitzaldiak erakusketa... LHko 1. eta 2. mailako ikasleek gurasoekin batera herri kirol saioa egin zuten, besteak beste.

## Eskolako Kultur Astea

Azken urteetan bezala, eskolako Kultur Astea ospatu dugu maiatzaren 22tik 26ra bitartean. Ekintza ugariz gozatzeko aukera izan dugu. Astea gogor hasi genuen, Haur Hezkuntzako familia eta ikasleentzat jolasak antolatuz. Denak elkarrekin primeran pasa genuen. Honetaz gain, arratsalde horretan, 4. mailako ikasleak, Castillo Suarez idazle altsasuarrarekin egon ziren.

Asteartean, Tutore-lrurle proiektuan bikote diren ikasleek elkarrekin zenbait jardura egiteko aukera izan zuten. Goizean zehar, ekintza desberdinak bideratu zituzten ikasle zaharrenek euren bikote gazteenekin eta arratsaldean, ikasturteko Ibarberri Kantuz saioei amaiera emateko asmoz, herriko plazara joan ginen kalejiran eskola osoa, ikasturteko abesti guztien emanaldia familiei eta herritarrei eskaintzera. Dantzan bukatu genuen denok.

Asteazkenean bertsolaritza saioez gozatzeko aukera izan zuten eskolako ikasle eta irakasle guztiek. Oskar Estanga eta Alaia Martin bertsolariak izan genituen gurean. Asko gozatu genuen.

Ostegunean, Lander Egiaren bizikleta gainean bidaiatu zuten 3. mailatik hasi eta DBH 2. maila bitarteko ikasleek. Tolosar



Ibarberri Kantuz saioari amaiera eman zioten herriko plazan.



Dantzan amaitu zuten Ibarberri Kantuz emanaldia.



Ikasle eta gurasoek herri kiroletan parte hartu zuten.



DBHko ikasleek antzezlan bat eskaini zuten.

honek bi urte igaro ditu Tolosatik Tokyoraino bizikletaz joaten. Bere esperientzia bizi eta zenbait galdera egiteko aukera izan genuen. Arratsaldean, 1. eta 2. mailako ikasleek familiekin jolasak izan zituzten eta DBHko ikasleek herritarrentzat antzerki emanaldia eskaini zuten.

Ostiralean DBHko ikasleek Komiki tailerra izan zuten goizez. Arratsaldean, Haur Hezkuntzako ikasleek eskolako guraso baten eskaintako "zirko" emanaldiaz gozatu zuten eta DBHko ikasleek Lehen Hezkuntzako ikasleei antzerki saioa eskaini zituzten. Bukatzeko, literatur lehiaketako sari banaketa izan genuen arratsalde horretan. Aste hauetan zehar eskolako sarrean zintzilik egon dira ikasleen lanak. Lan bikaina egin dute denek, zorionak! Eguneroko jardura guzti hauetaz gain, aste osoan zehar, eskolako liburutegian sukaldaritza inguruko erakusketa eta hainbat jardura ere izan ditugu, eta bertatik pasa dira eskolako ikasle guztiak.

Amaitzeko, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu Eskolako Kultur Astean parte hartu eta antolatzen lagundu diguzuen guztiei. Mila esker!!

**04>** Iritzia

**08>** Luze: Koldo Nuñez

**09>** Zabal: Veronica Satrustegi



## 10 > Mikel Huarte

Mikel Huarte, Larraungo Udaleko zinegotzia eta Baraibarreko Kontzejuko lehendakaria da. Nafarroako Toki Administrazioaren errefor-maren berri ekarri digu.

**18>** Kuxkuxean: Ekaineko zorion agurrak.



## 22 > E18 herri galdeketa

Mendialdeko Gure Esku Dagok ekainaren 18an eginen den herri galdeketan parte hartzeko deialdia egin die herritarrei. Dagoeneko erantzun beharreko bi galdera zehatzak zeintzuk izanen diren publiko egin dute ekimeneko kideek.

**24>** Kirola: Beti Kozkor 3. mailan lehenengoz.



## 26 > Intza-Ttuturre KB

Irailaren 2an izanen den Intza-Ttuturre Kilometro Bertikala antolatzen dabilta. Araxes Mendi Taldeko kideek babes ekonomiko nahikoa lortu dute proba aurrera eramateko.

**28>** Erreportajetxoa: Laiene Izagirre.

**31>** Kontu txikiak: Agenda eta Merkatu txikia

## LARRAUNGO UDALAK ONARTUTAKO MOZIOAK

### -Haurren transexualitatea ulertzeko eta laguntzeko garrantzia dela eta.

- 1.- Larraungo Udalak bat egiten du *Chrysallis*-ek abiatutako kanpainaarekin eta kanpainaaren kartela hainbat toki publikoetan jartzeko konpromisoa hartzen du.
- 2.- Larraungo Udalak transexualitate egoeran dauden haurren, helduen, zein ingurune hurbilaren ongizateagatik *Chrysallis* elkarteak egiten duen lanaren helburu eta eskaerak ulertu eta babesten ditu. Gainera, oztopo guztien gainetik, elkarteak egiten duen lana goraipatu eta txalotu nahi du.
- 3.- Larraungo Udalak *Chrysallis* elkarteak egin duen kanpainaaren kontrako eta beste hiriburuetan gertaturiko erasoak, gogor errefuxatzen ditu.
- 4.- Larraungo Udalak, haur transexualen, zein oro har, trans\* komunitatearen bizi baldintzak hobetzeko eta beraien eskubideak bermatuak izateko lan egingo duela jakinarazten du.

### -“Guernica” Gernikara.

- 1.- Larraungo Udalak, Gernikako herriaren aurka 1937an egindako sarraskian oinarritutako Picasso-ren “Guernica” margolanaren kokapenik egokiena, Gernika dela adierazten du. Gertaera historikoa, artelana eta herria bera uztartzea funtsezkoa dela adierazten du Udal honek. Ondorioz, “Guernica” Gernikara ekartzeko eskaera formala luzatzen dio Espainiko Gobernuari eta Kultura Ministeritzari.
- 2.- Larraungo Udalak bere egiten du Picassok margolanarekin mundu guztira zabaldu nahi izan zuen salaketa, alegia, herrien zein giza eskubideen aurkako zapalketa, gerra eta genozidioaren salaketarik ozenenarekin.
- 3.- Larraungo Udalak, erabaki honen berri emanen die, Nafarroako Gobernuari, Gernikako Udalari, Espainiako Gobernuari eta Kultura Ministeritzari.”

### -Elkartasun alkate kurduekin.

Udalak erabaki du:

- 1.- Salatzen duela azken urteotan eta bereziki 2016ko uztailaren 15eko estatu-kolpe saioaren ondorioz, Turkiako gobernuak hartu duen jite autoritarioa, zeinen ondorioz herritarren oinarritzko giza eskubideak eta printzipio demokratikoak etengabe larriki urratzen ari baitira.
- 2.- Bereziki larria iruditzen zaiola herritarrek demokratikoki hautatutako ordezkariak, alkateak kasu, gobernuak dekretuz kargugabetu izana.
- 3.- Elkartasuna adierazten diela alkate horiei eta arrazoi politiko soilengatik kargugabetu edo kartzelaraturako ordezkari politikoei.
- 4.- Bat egiten duela joan den azaroaren 24an Europako Parlamentuak hartutako erabakiaren non Turkiaren atxikimendu-prozesua izoztea eskatzen baitzen, estatu horretan demokraziaren oinarriak jasaten ari diren higidura arrazoitzat hartuta.
- 5.- Eskatu egiten diola Turkiako gobernuari errepresioarekin buka dezala, oinarritzko askatasun demokratiko guztia berrezar dezala eta lehenera diezazkiela errepresioa sufritu duten herritar eta erakunde guztiei aurretik zituzten eskubide guztiak, lanpostura itzultzekoa barne.
- 6.- Erabaki honen berri ematea Turkiako Errepublikak Madrilen duen enbaxadoreari.



## Sotana ez da beti beltza

Benetan handia denak, gutxitan eman ohi du bere handitasunaren berrri. Asko esaten duenak, zer esan gutxi izaten du. Baina zer kontu duenak, nahiago izaten du besteek deskubritu dezatela, norberak aitortu beharrean. Eta horrelakoxea zen bera. Historia luzea zuen atzean. Luzea eta interesgarria. Eta historikoa. Norberarena izateari utzi, eta guztiona bihurtzen den historia. Gerora liburuetan topatuko nuen horren protagonistetako bat izan genuen etxean. Eta hori, luxu bat da. Baina ez aberatsen luxua, aberatsak bagina, akaso ez genukeelako halako zortetik izango. Bazekielako berak zeinen ondoan behar zuen egon. Behartsuenen alboan, herriaren pare. Pare pare. Behar gehiena duenaren alde borrokatzeko prest. Lekuko hutsa izateak ez zuelako balio. Ez zen hori berak ikasi zuena. Eta ez zen hori berak erakutsi ziguna. Histori horretan, batzuetan lekuko izatek protagonista izateko aukera ematen dizun historia horretan, begirale soila izatea interesgarri izan daiteke. Baina ez zilegi. Ez behintzat ezer egiteko aukerarik baldin baduzu. Eta horixe bai erakutsi zigula: Zer edo zer egin dezakezu? Ba egin! Gero penatan geratzeak ez du merezi, baina batez ere, ez du balio.



Eskolatik etorri, arazoren bat kontatu, eta horixe bera aholkua: Ea, go-goeta egin, ongi aztertu, eta konponbideak jarri bat bestearen alboan.

Zein da zentzukoena? Eta juxtuena? Ba horrekin aurrera! Berdin arazoaren neurria, jarrera, beti berbera. Denborarekin gero eta istorio gehiago genekizkien. Historia handi horren piezak. Historia, liburuetako historia osatzen duten istorio txikiak. Eta horietan, izenak eta tokiak pilatzen hasten dira. Salvadorreko bazterrak. Oihan bat eta bestearen izena. Gerrilariak. Herritarrak. Romero delako bat. Monseñor. Monseñor Romero. Liburuetan ikasten dituzunak. Askatasunaren teologia. Orduan jabetzen zara, izena eta izanaz. Izena ez zenekiela, baina izana bai. Etxean entzundako istorio guztiak osatzen zutela historia liburuetako irakasgaia. Horixe zela “askatasunaren teologia”. Han eta hemen. Urrun edo gertu, izen bat edo beste. Baina izana, berdina. Orduan jabetzen zara bidai guztiak ez direla hautuzkoak izaten. Eta akaso, bera ez zela Araitzera etorri. Akaso, ekarri egin zutela. Bidali egin zutela. Bota egin zutela.

Hemen ez zegoen FMLNrik. Ez zegoen gerrilarik. Baina berehala topatu zituen beste hamaika borroka. Euskararena, aspaldian hasi bai, baina bukatu gabe utzia zuena. Euskaldunberri bat etorri behar euskaldunzaharrak dantzan jartzera! Gaueskola bai, baina beste zerbait behar zela ere bai. Eta horregatik, bere ikaskideekin batera sortu zuen oraintxe esku artean duzun aldizkari hau. Pilotazale porrokatua izanik, bazekien sakean pilota nora bota, kontrastakea egon zedin. Eta lortu zuen. Mailoperen atea zabaltu zizkidan niri. Beste hainbeste zabaltuko zizkion bakoitzari. Elizaren beraren atea zabaltu zizkion, ohitura eta zaletasun handirik ez zuenari. Elizak, bere ustez, halakoa behar zuelako. Zabala. Irekia. Aitortza, kolektiboa izan zitekeela erakutsi zigun. Horregatik, gerora adinez gazteago baina pentsaeraz zaharrago zirenak etorritakoan, herriko amonek, euren iraultza txikia egin zuten. Ez zutela aitortekura itzuli nahi. Horra beste garaipen bat. Txikia edo handia izan, iraultza beti delako iraultza. Kolore bateko edo besteko, borroka, beti izango delako borroka. Eta berak argi utzi zigun, sotana beti ez dela beltza, beti ez dela iluna. Sotana hamaika koloretakoa izan daitekeela. Borroka bezainbeste kolore dagoela. Sotana gorria. Edo berdea. Edo larroxa. Eta beltza baino, justiziaren sotana zen berea. Amerikan zein Euskal Herrian. Salbadorren hala, Araitzen. Horregatik, guretik joan den honetan, goian baino, gure borroketan bego. Egun haundira arte, edo garaipenera arte, Plazido!

Urko Aristi.



**ASEGURU AHOLKULARIAK**

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarria behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



**NEKAZARI, S.L.**

**Kubota**  
**STIHL**

Olagain. Mugiro. Nafarroa  
Tel.: 948504128  
Fax: 948504377  
nekazarisl@hotmail.com



**BIDEGOXO JATETXEA**

Jaunartzeak  
Ezkontzak  
Ospakizunak  
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia  
20400-TOLOSA 943 577 573  
info@bidegoxo.com

# Bertso berriak

## Mailoperi jarriak

Haydee Calderon (Iribas)



*Udaberria jantzi  
da bake kolorez  
inguruak loretu  
dira urtero lez,  
bake ikur kolore  
guztiak direnez  
osa dezagun orain  
ortzadarra indarrez.*

*LGTB fobian  
aurkako **pultsua**  
maiatzako hamazazpi  
lorpenen **kasua**,  
orain aste egin da  
aurrera **pausua**  
erreko dugu behingoz  
gorrotoan **sua**.*

Maddi Urrarentzako puntua:

Asmatu ezinean  
nondik etorria

Oinak:

Ezaguna, laguna, dizuna, askatasuna.



Doinua: Galerianorena.

- 6 -



### ARRUIZTIK SANTA LUZIARA

40 lagun inguru elkartu ziren arruiztarrek maiatzaren 7an Santa Luzia basilizara egindako erromerian. Herriko gurutzea hartu eta eguerdiko hamabiak aldera iritsi ziren San Migeltxoko errepidearen bazterrean dagoen basilizara. Jexux Mari Sotilekin batera Meza Nagusia ospatu ondoren aperitiboaz gozatu zuten.



### HAURRENTZAKO IRRISTAKETA IKASTAROA

Haurrentzako irristaketa ikastaroa izanen da ekainaren 6tik 29ra bitarte. Bost urtetik gorako haurrei zuzendurik dago. Saioak astearte eta ostegunetan izanen dira, arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara. Bazkide direnentzako izen-ematea 25 eurokoa izanen da eta bazkide ez direnentzako 33,75 eurokoa. Patinik ez baduzu, Plazaola kiroldegiko harreran galdetu.



### SAN JOAN SUAK

Ekainaren 23an, San Joan bezperan, herri askotan sua piztuko dute, eta suaren bueltan merendu eder batekin eta animatuenek saltoka emanen diote ongi etorria udari. Lekunberrin gainera, San Joan egunean herri bazkari batekin ospatuko dute herriko patrioaren eguna.

## E18ko herri galdeketari begira



Pello Azpiroz

Kaixo Andrea, zer moduz? Uda ate joka daukagu eta denok gabiltza lanpetuta. Nik behintzat badut ikasturtea bukatzeko gogoia, udaz gozatu ahal izateko. Eta noski, ikasturtearen amaierarekin batera, badator Mendialdeko Gure Esku Dagok antolaturiko galdeketa, ekainaren 18an egingo dena. Gaurko honetan, honen inguruan hitz egiteko asmoarekin natorkizue.

Ni, Larraungo lantaldean nabil lanean ilusioz eta gogotsu eta lehenik eta behin, argi utzi na-

“Gure Esku Dagok ez du nahi baiezkoak edo ezezkoak irabaztea”

hiko nituzke gauzatxo batzuk. Gure Esku Dago herritar mugimendu demokratiko eta anitza da, ez da partidu batek edo batzuek sortua izan. Herritarrok erabakitze eskubidea dugu eta praktikan jartzera goaz gurean ere eskubide hau, erabakiaren garaia da.

Helburua garbia da: herritarren iritzia plazaratzea modu garden eta demokratiko batean, gure estatus politikoaren inguruan eta horretarako parte-hartzea ahalik eta altuena izatea nahi dugu. Gure Esku Dagok ez du nahi baiezkoak edo ezezkoak irabaztea, bakoitzak egin dezala bere hautua, baina denok bozkatzera joatea nahi dugu (berdin zaigu baiezkoa, ezezkoa edo zurian bozkatu).

Orain arteko galdeketetan parte-hartze kopuruak ezberdinak izan dira, baina nire ustetan denak onak. %25eko parte hartzea ona da, kontutan hartu behar dugu ez dela galdeketa lotesle bat, hauteskunde orokor batzuetan alderdi guztiek beraien kanpaina egiten dute, komunikabideek etengabe bonbardatzen dute parte-hartzera bultzatuz... Estatu baten makineria guztia martxan jarrita juxtu-juxtu pasatzen da %50, ideia bat izan dezazuen. Gure Esku Dagoren arrakasta herritar ezberdinen artean sortzen den sarea da.

Horregatik guztiagatik, 16 urtetik gorako guztioi ekainaren 18an bozka ematera animatzen zaituztet, oso garrantzitsua baita herritarrok gure iritzia plazaratzea. Uda eta kurtso bukaera ona izango duzelakoan, hurren arte denoi!

Aupa Pello! Argi dago uda ate joka dugula, zelako beroa azken aste honetan! Ni ere gogoz nago udako egunak iristeko, hala ere onartuko dizut, ikasturte bukaerako aste hauei xarma berezia aurkitzen diedala, uda usaina dute, baina udaberriaren freskotasuna eta bizia. Urtea aste bat balitz, momentu hau ostirala litzateke niretzat. Gainera, zuk aipatu bezala, uda hasiera ederra dugu, ekitaldi garrantzitsu batek hasiera emango dio. Eta ez soilik udari, baizik eta gauzak egiteko modu berri bati.

Hasieran esan dut, baina egia esan, nahiz eta ekainaren

“Emaizta eta parte-hartzea edozein dela ere, fruitua jasotzen hasiak dira”

18an, Mendialdean galdeketa eguna dugun, aro berri hau lehenago hasi zen. 2014. urtean Durangotik Iruñerako giza katean, guztiok ilusioz eta eskutik harturik dugun handitasuna azaldu zuen lehen adierazpenean. Ederra izan zen elkar ulertu eta batzen gaituen proiektu honek loalditik esnatu gintuen momentua.

Elkar ulertu eta batu gintuen, hausten hasi zen aurreiritzi eta tentsioengatik, elkar ulertzeko gogoagatik, hartu zuen giro positiboagatik eta freskotasunagatik. Eta loalditik esnatu diot, gizarte mugimendu honek sortu duen hausnarketa olatuagatik. Pentsarazten jarri gaitu

herritarrok, hausnartzen, burujabetzen, gauzen gaineko erantzukizuna hartzen.

Beti iruditu izan zait mirestekoa, gogo onez eta gauzak erakitze ilusioak bultzaturik edozein herritarrek aurrera eramaten dituzten ekintzak. Kasu honetan, eta gurean zentratu-rik, Gure Esku Dago Mendialdea osatzen dugunok, eta batez ere buru-belarri lanean aritu diren gure herrietako bizilagunek egindako esfortzuaren eta adierazi duten ausardiaren aitortza merezi dute. Argi daukat, emaitza eta parte hartzea edozein dela ere, fruitua jasotzen hasiak direla.

Beraz, eta bukatzeko, larraundar, lekunberriar, araitzar nahiz beteluar hori, ekainaren 18an hautestontzietara gerturatu eta gure iritzia emanik, hausnartzen duten eta bere ilusioak aurrera eramaten saiatzen diren herritarrak garelako adieraziko dugu.



Andrea Etxarri





Koldo Nuñez-Betelu

LUZE

# Natura sendagarria

Udaberria aurrera doa eta laster hemen izango dugu uda, garai onak Naturara hurbiltzeko. Araitzen bizi garenok izugarrizko altxorra dugu, Natura bertan baitugu. Zalantzarik gabe, paraje paregabean bizi gara, bai paisaia aldetik, bai oraindik hau dagoen egoeratik ere. Gainera, leku bat zenbat eta naturalagoa egon, hainbat eta hobe gure osasunarentzat. Izan ere, gero eta ikerketa gehiagok frogatzen dute gizakiok Naturarekin kontaktua izateko dugun beharra osasuntsu egoteko edo osasuna berreskuratzeko.

“Estresa eta depresio kasu gehiago naturatik urrun daudenen artean”



Esaterako, 1984an Edward O. Wilson biologo amerikar famatuak *Biophilia* izeneko liburua argitaratu zuen. Bertan aztertu zuen gizakia eta Naturaren arteko harreman historikoa eta nola joan garen poliki-poliki naturatik urruntzen. Izan ere, gizakia, munduko gainerako espezieak bezala, naturan sortu zen eboluzioaren bidez. Milaka eta milaka urtetan zehar, gure espezieak ingurumena menderatu zuen aurrera atera ahal izateko, oso espezie ahula baikara. Naturaren erdian, arriskuak handiak ziren gure espeziearentzat eta babesaren hobeak, sua menderatzeak eta hasierako tresnak egiteko teknologiaren garapenak, gure espezieari aurrera egitea ahalbidetu zion, garai txar eta gogorrek bizi behar izan bazituen ere. Glaziazioetan, ugaztun espezie asko desagertu ziren, baina ez gurea, eta gero eta gehiago ginenez, planeta osoa kolonizatzea ausartu ginen. Hortaz, esan genezake arrakastatsu izan garela, espezie ahula bagara ere. Baina arrakasta neurri ba-

tean naturatik aldentzean lortu dugu eta honek arazo berriak ekarri dizkigu. Ingurumenaren arriskuetatik, beste animalia batzuetatik eta beste gizaki multzoetatik babesteko herriak eta, ondoren, hiriak eraiki genituen, alegia, oso espazio artifizialak eta ingurumenearekin oso harreman gutxikoak. Honek babeseta eta erraztasun batzuk ekarri dizkigu, baina baita arazo asko eta larriak ere.

Izan ere, gizakia milaka urtetan naturarekin etengabe harremanetan egon ondoren, inguru naturala eraldatzen, hondatzen eta honekin zuen kontaktua galtzen hasi da. Joera hau larriago bihurtu da, batez ere azken mende eta hamarkadetan eta azkenean, gure espeziea bera ere arriskuan jartzen ari da. Baina espeziea bera soilik ez, dagoeneko pertsona askoren osasuna ere kaltetzen ari da naturarekin harremana

ez izateagatik. Horrela, besteak beste, antsietatea, estresa eta depresio kasu askoz gehiago ematen dira naturatik urrun daudenen artean eta ikerketa batzuen arabera, %30 gehiago izatera iritsi daiteke. Beste ikerketa batzuk, aldiz, frogatu dute bizi-itxaropena %12 luzatzera iritsi daitekeela maiz, naturarekin harremanetan egoten bagara. Orokorrean hau aspaldi da ezagun, neurri batean, eta horregatik XIX. mendetik aurrera bainuetxeak eta antzekoak eraiki ziren jendeak osasuna berreskura zezan. Hortxe dugu, kasu, Betelukoa. Bertan ur medizinalak hartu eta Araizko naturan barrena, askok eta askok bilatu zuten sendatzearen bidea.

Osasuna eta naturarekin behar dugun harremana kontuan hartuta, Wilson biologoak ekoterapiaren teoria proposatu zuen, alegia, naturarekin kontaktua berez terapeutikoa dela. Esaterako, goian aipatu ditudan depresio, antsietate eta estresaren kasuan, egunero inguru natural batean paseatzeak asko laguntzen duela frogatu da, hainbat botikek beste. Hoberena, ahalik eta inguru naturalenean ibiltzea da, pasu azkarrean, odola ondo oxigenatzeko, baina gehiegizko esfortzurik egin gabe. Ahal dela, gainera, eguzkiak jotzen duen orduetan, hori bai, eguzkiarekiko babes neurriak ondo hartuta. Araizko ingurunea, beraz, gure eta askoren osasunerako oso baliagarria izan daiteke, are eta baliagarriagoa zenbat eta naturalago mantenduz. Gure ardua da, beraz, natura sendagarri hau ongi zaintzea, hurrengo belaunaldiak ere bere onuraz baliatzeke.

**Antsoenea**  
BASERRIKO GAZTA

948 513 468  
www.antsonea.com  
Uztegi (Araitz)

**INFORMATIKA ARALAR**  
LEKUNBERRI - ARAITZ  
LARRAUN  
JALMENTA ETA KONPONTZA

634 551 743  
infoaralar@gmail.com

**AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA · HARATEGIA ·**  
**PATXI GALARZA**  
Astelehenetik larunbatera  
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00  
Igande eta jaiegunetan  
8:00 - 14:00  
Irurtzun

**SAN MIGUEL**  
Taberna-Jatetxea  
Arribe  
948 51 31 34





# Afrika, kontinente ezezaguna

Afrika beltza. Kontinente ugaria, ezezaguna, sakona eta bukaezina. Pobrezia edo baliabide naturalak ustiatzeaz ez bada, deus gutxi entzuten da kontinente beltzaz. Are gutxiago bertako mugimendu sozialez, kasu honetan mugimendu feministaz.

Sartaldeko feminismoak emakume zuriak eta klase ertain-altukoak ez zirenak baztertzeko zituen momentuan, emakume beltzek alternatiba eraiki zuten: *Womanists*.

Alice Walkerrek, olerkari eta aktibista afroamerikarrak, *In search of our mothers' garden: Womanist Prose* (1983) liburuan lehen aldiz erabili zuen emakume beltzak bilduko zituen mugimenduari izena. Idazlearen hitzetan: "womanist mugimenduak eta feminismoak, moreak eta izpilikoloreak duten antzekotasun bera dute". Feminismo beltza deiturikoa eraikitzeko lehen harria ipini zen.

Emakume afrikarrek gabezia bat ikusten zioten, ordea. Horregatik, *womanist* mugimenduak defendatzen zituen puntuak, emakume afrikarren ikuspuntura moldatzea ezinbestekoa zela ikusi zuten.

Chikwenge Okonjo Ogunyemi nigeriarra izan zen "*African Womanism*" terminoa erabiltzen lehena 1985ean. Teoria honek feminismo zuria edo womanism afroamerikarra baztertu nahi zituen eta emakume afrikarren kezak abiapuntutzat hartu: pobrezia, gizona eta familiarekin arazoak, poligamia edo amatasuna, besteak beste.

Feminismoa lantzen denean nekez aterako dira emakume afrikarren izenak. Mendebaldeko belarrietara ez da informazio hori iristen. Eta, beraz, euren jarduera ezagutzeko Interneten saltsan ibiltzea besterik ez da gelditzen. Horixe



## "Emakume beltzek alternatiba eraiki zuten"

da nik egin dudana. Sarea kuxkuxean ibili izen gutxi batzuk zuei ekartzeko.

**Mariama Bâ (Dakar, 1929-1981).** Senegalgo familia dirudun musulman batean jaio zen idazle eta aktibista da. Emakume beltzen isiltasuna apurtu zuen sinbolo gisa ezagutzen da Mariama Bâ.

Dibortziatuta, bederatzi seme-alaba hezi zituen. Hazi zirenean, emakumeen aldeko aktibismo politikoa hasi zen eta 51 urterekin idatzi zituen bere lehenbiziko testuak. Aipagarriena frantsesez idatzirik, eta gaztelerara itzultitako, "*Une si longue lettre*"; afrikar literaturako klasiko bihurtu den liburu feminista.

**Nawal El Saadawi (Egipto, 1931).** Idazle, feminista, medikua, psikiatra eta aktibista politikoa. 1972an *Emakumeak*

*eta sexua* liburuak idatzi zuen, bertan emakumeen mutilazioa salatzen zuen. Horregatik lanpostua galdu zuen; Egiptoko Osasun Publikoko zuzendari orokorra izateari utzi behar izan zion. Bizitza emakumeen eskubideen alde borrokatzen igaro du.

**Ama Ata Aidoo (Ghana, 1942).** Artista afrikar honek emakume beltza irudikatu du urtez urte eta hainbat antzezlan sortu ditu.

"*Our sister killjoy*" gaztelaniara itzuli den obra bakarra da. Kontinente afrikarraren eta Europaren arteko desberdintasunak aztertzen eta kritikatzeko modu literario-poetiko batean. Europako kritiko askok "mendebaldearen aurkako jarrera" duela salatu dute. Eta baliteke hori izatea bere liburuak hizkuntza gehiagotara ez itzultzeko arrazoia.

**Fatema Mernissi (Fez, 1940 – Rabat, 2015).** Unibertsitate irakaslea izan zen. Emakume musulmanen eskubideen alde irmoki borrokatu zuen. 70. hamarkadan gizarte musulmana berreraikitzeko beharraz idatzi zuen eta zalan-tzan jarri zuen sistema patriarkala.

# *Toki Administrazioaren erreformak aldaketak ekarriko ditu aurki*

- 10 -



*Oihartzun gutxi izaten ari den gaia da, baina aldaketa handiak ekarriko ditu Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatan. Orain dela urtebete ekin zion Nafarroako Gobernuak erreformaren nondik norakoak zehazteko bideari eta dagoeneko lehenengo fasea amaitu dute. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren bitartez eta toki-erakundeetako ordezkariekin prozesu parte-hartzaile bat jarri zuten martxan, euren proposamenak eta ekarpenak jaso eta lantzeko. Bertan osatutako behin-behineko proposamena 2016ko ekainean aurkeztu zuten Nafarroako Gobernuan eta Toki Administrazioko Zuzendaritza Nagusiak aditu talde batekin batera zirriborroa aztertu eta bigarren fasearekin hasi ziren aurtengo urtarrilean.*

Orain gobernuak egindako ekarpenak aztertzen dabiltza toki-erakundeetako ordezkariekin osatutako taldeetan eta aurreikuspenen arabera, udan behin-betiko dokumentua emanen zaio gobernuari eta horrek berrikusi eta onartuz gero, lege bihurtu eta parlamentuan aurkeztuko da.

Mikel Huarte Larraungo Udaleko zinegotzia eta Baraibarko Kontzejuko lehendakari da, prozesu parte-hartzaile horretan parte hartzen ari da eta berak eman digu zehaztasunen berri.

### **Nondik sortu da Nafarroako Toki Administrazioaren egitura aldatzeko beharra?**

Nafarroan nahasketa handia dago, 300 kontzeju baino gehiago daude, ia 200 udal, 60 mankomunitate baino gehiago eta nahasketa izugarria. Adibidez, gurean ere, Euskara Mankomunitatea udal batzuek osatzen dugu, Gizarte Zerbitzuak beste batzuek eta Kirol Mankomunitatea beste batzuek. Horrek Nafarroako administrazioan traba asko eragiten zituen. Aurreko gobernuak zirriborro bat egin zuen, non Nafarroa hiru edo lau eskualdetan banatzen zuen, baina ez zuen nahiko babesik izan eta bertan behera gelditu zen.

### **Eta gobernu berriak berriz ere gaiari utsi dio...**

Bai, prozesu parte-hartzaile bat irekitzea erabaki zun. Sei herritan erronda bat egin zen lehenik, eta lan taldeetan gaia lantzen hasi ginen, bigarren erronda batean inkesta bat ere bete genuen eta hasierako inkesta horretan jasotako iritzi eta ekarpena izan da ondorengo guztiaren oinarria.

### **Zein gairi buruzko iritzia jasotzen zen inkesta hartan?**

Tokiko maparen banaketak nola behar zuen, zein zen banaketa egokiena, entitate bakoitzek ze eskumen euki beharko lituzkeen, zer eon beharko lukeen kontzejun eskutan, zer udalan eskutan eta zer mankomunitateen eskutan. Oaindik ez dao guztiz argi, mankomunitateek udalen menpe eongo ote diren edo euren politika propioa izanen duten. Hala ere, mankomunitate bakoitzek izain do dagokion lurraldeko eskumen batzuk, uraren goi-hornidura, gizarte zerbitzuak etab. Erreforma indarrean sartzen bada, mankomunitateak dagokion lurralde eremura egokitu beharko dira, adibidez Larraun ez datteke eon Saka-



Gure lau udalerriek Goizueta, Arano, Areso eta Leitzarekin batera eskualde bakarra osatuko dute.

*“Tokiko mapa berriak hamahiru eskualde edo lurralde-mugaketa zehazten ditu”*

nako euskara mankomunitaten, bakoitzak dagokion esparruan behar du.

### **Beraz, zenbait bilera egin zenituzten, erreformaren oinarriak zehazteko eta orain zertan da proiektua?**

Nafarroako Gobernuan aurkeztu zen eta gobernuak bere aldatetarik in eta gero, aurten beste erronda batzuk eondu die eta oandik erabakitzeke dauden gaiak daude, gobernuari gure aldetik behin-betiko proposamena egin aurretik.

### **Lan-talde horietan zu 50 eta 100 biztanle arteko kontzejuen ordezkari zara. Nola eragingo die erreformak kontzejuei?**

Sumatu dut, udal konposatuetako ordezkari askotan kontzejutaz ahaztu itten diela. Denetik dao, badaude kontzeju batzuk intrusismoaz kejatzen die-nak, udalak kontzejun gaintetik daudela iruditzen zaienak, beste batzun iritiz utzikerie daola, beste batzutan jendea udalakin kexu da ta aurkari bezela

ikusten du, oso iritzi ezberdinek daude kontzejun arten. Adibidez, lehengo bat-en, Beruteko, Atalluko, Nabaskozeko eta Iruña inguruko beste kontzeju bat-eko ordezkari elkarren ondoan ginen eserita eta azken horrek esan zuen: “Argi dagoena da kontzejuek ezin du-tela uraren eskumena izan, ezinezkoa da kontzeju bat ura kudeatzeko gai iza-tea”. Eta Berutekoak beraiek kudeatzen due, Atallun Lazaro bera ibiltza klora-tzen eta Baraibarren eta Nabaskozen ere kontzejua arduratzen da. Horreatik, ezberdintasun haundik daude batetik bestea. Adibidez Larraunen bertan ger-tatzen da, badie kontzeju batzuk kriston dirutzakin eta beste batzuk ia gaitasun ekonomikoik ez duenak. Ne ustez, kon-tzejun gaia ez da gehiegi landu eta ze-haztu in beharko litzeke. Gaur egungo kontzejun eskumena legeztatzen dun legearen arabera, kontzejuk oso esku-men gutxi dituzte, festak, argiteria, on-darea eta erabilera publikoko ondasu-nak kudeatzea (bideak, hilerriak, etab.) eta ez askoz gehiago, gainontzeko guzie udalan eskutan dao.

### **Ura ere berez udalaren eskumena da...**

Bai ure eta saneamendue berez udalen eskumena da, beño askotan kontzejun eskutan uzten da, hemen, Larraunen, lagapen bat onartu zen kontzejun ku-deatu ahal izateko. Hori tarteka egiten da, eskumen batzuk udalaren esku uz-ten die. Bileretan, nahiz eta saiatu dena

## elkARRIZketa:

*“Gauze asko eskualde mailan kudeatuko die, beño asmoa ez da dena leku baten zentralizatzea”*

ikuspegi zabalago batekin aztertzen, azkenean denak norbere txilborrai beire egoten gara eta eskumen guzik normalen udalera edo kontzejura jotzen de normalen eta baita finantziaioa ere, eta marronak beste esku utzi nahi izaten die.


### **Kontzejuak desagertzeko baldintzak ere aldatu egingo dira...**

1991ko legearen arabera, 15 biztanle baino gutxiagoko kontzejuak desagertu eta udalan esku gelditzen die eta erreforma berriarekin oain argi gelditu da ez dula hola behar, kontzeju bat desagertzekotan beste baldintza batzuegatik desagertuko dela. Adibidez, bi legegintzalditan ez bada inor aurkezten, biztanleen gehiengoak nahi badu... Beño biztanle gutxi izanagatik ez da desagertuko, gertatu izan dira kasuak azkenaldian desagertu eta handik

urte gutxitara 15 biztanle baino gehiago izatea. Hori bai! desagertzen bada inoiz ezingo da kontzeju izan.

### **Momentu honetan, gure eskualdea non kokatzen du zirriborro horrek?**

Proposatzen den tokiko mapa berriak hamahiru eskualde edo lurralde-mugaketa zehazten ditu, gure eskualdea Goizueta, Arano, Leitza, Areso, Lekunberri, Larraun, Araitz eta Beteluk osatuko genuke. Sakana da beste eskualde naturala, Piriniokoa ere bada beste bat nahiko logikoa nahiz eta Erroi-



*“Gainontzeko eskualdeekiko banaketa nabarmenagoa izanen da”*

barreko batzuk ados egon eta beste batzuk Ezkabarerekin joan nahi duen... Iruña eskualde bakarra izanen litzateke eta Iruñerria beste bat. Beño bada oso arraroa den eskualde bat, Gareстик hasi, Ollaran, Goñi bailara, Imotz, Basaburua, Ultzaman Atetz eta Odieta hartzen dituen, besteak beste. Lurralde-mugaketa horrekin asko ez daude batere ados eta oraindik erabaki gabe dago. Garesek Lizarraldera jo nahi du, Ollaran eta Goñi Sakanarekin lotzeko aukera aztertzen dabilta... Basaburua eta Imotzko zenbait herritar gure eskualdearekin identifikaturik sentitzen dira, baina baita Ultzamarekin ere. Erabaki gabe dago.

Aurreikuspenen arabera, urte honen bukaerarako dena lotuta eonen da, eta behin-betiko proposamena Nafarroako Gobernura joanen da eta han aztertu eta onartu egin beharko dute. Gero, lege dekretu bat egin beharko da, hau da, hori guztia legeetara pasa behar da. Lege dekretu hori legegintzaldi honetan onartu nahi dute eta onartuko balitz epe bat zabalduko da aldaketa guztiak emateko.

### **Nola eragingo digu horrek guztiak?**

Gauze asko eskualde mailan kudeatuko die. Arazo bat baldin badaukezu, zuzenen eskualdera jo beharko duzu. Dena den ez da asmoa dena leku baten zen-



Zaborraren kudeaketa eskualde mailan kudeatu beharreko gaitako bat izanen da.

tralizatzea. Esaterako gurean, ez pentsa dena kudeatzeko zerbitzuak Leitzan zentralizatu eta edozein izapide egiteko Leitzea joan beharko dugunik. Oaindion dena lotu gabe dao, beño suposatzen da eskualde mailako izapideak udalean bertan egiteko aukera izanen dela. Beño hoi dena aurrerago aztertu beharko da.

### **Mendialdea Mankomunitatea antzeko filosofiarekin sortutakoa da ezta?**

Bai, filosofia horrekin in zen eta oain hortan sinisten giñunantzat oso naturala da sortu den banaketa berria. Horren aurretik udalen bitartez eta enpresa pribatu baten bitartez kudeatzen ziren hondakinak. Gainera, 2009an, Mendialdea sortu zen, eta estatutuetan nahiko garbi jartzen du, ez zen sortu bakarrik hondakinak kudeatzeko eta gure apustue, EH Bilduren apustue, izandu zen hoi indartu eta beste eskumen batzuk ematea mankomunitateari. Gero hitzamenarekin arazoak izan dira, beño Mendialdeko batzarretan biltzen garenok ilusioz gaude tokiko maparen gaiarekin, bat egiten dulako mankomunitate horren filosofiarekin.

### **Mendialdea Mankomunitateak momentu honetan, Goizueta, Areso, Arano, Leitza, Lekunberri eta Larraun hartzen ditu, Araitz eta Betelu ez zien sartu...**

Ez, bere garaien ez zien sartu, beño erreforma indarrean jartzen denen sartu in beharko due bai edo bai. Kirol mankomunitatea ere aldatu egingo litzateke eta Gizarte Zerbitzuen mankomunitatea ere tokiko mapa berrira egokitu beharko da, ez dugu Irurtzunekin, Imotz eta Basaburuarekin partekatuko. Bestalde, askok arduraturik daude egitura berriarekin udal langile eta mankomunitateetako langileekin zer gertatuko ote den ez dakitelako, baina asmoa langile guztiak birkokatuko direla.

### **Finantziazioan ere aldaketak ekarriko ditu..**

Bai. Finantzatzeko modua ere aldatu egingo da. Orain arte, ate bat jo eta politikaria konbentzitu gero lortzen zifun. Finantziazio eredia zaharkiturik dao eta bizio asko dao. Oso diru-ekarpen murrizta ematen zaie udalerriei eta gainontzekoa diru-laguntzen bitartez banatzen da. Herrian frontoi bat itteko adibidez, udal edo kontzeju askok ez due inoiz diru sarreraik horretarako, Nafarroako Gobernuak ez dizu ematen, beño mo-



Mikelen ustez, finantziazio eredu berriakri esker, kontzejuak aukera gehiago izanen dituzte.

## “Finantziazioan aldaketa handiak ekarriko ditu”

mentu baten gobernuak atera dezake diru-laguntza eta aurkeztuz gero puntuazioaren arabera lortzen duzu. Beño sistema horrek ez du ongi funtzionatzen. Adibidez, Gipuzkoan urtero gobernuak biztanlen arabera, diru kopuru bat ematen die udalei. Nere ustez, oraingo eredia egokituz gero solidariagoa dela. Herri batzuk euren diru sarrerak dittuelako eta beste batzuk ez. Biztanle kopuruaz gain beste baldintza batzuk hartu beharko lirateke kontun. Oain kontzeju asko diru-laguntzen menpe daude eta ez due diruik deus aurea eramateko. Pasa izan da, zenbait kontzejutan obrak egiteko %60ko diru-laguntza lortu beño %40ari aurre egiteko gai ez izatea. Ego-

kina litzeke dirue solidarioki banatzea, diru-sarrerak, ondarea kudeatzeko modua etab. kontuan hartuz. Finantziazioan aldaketa handiak ekarriko ditu eta pentsatu nahi dut kontzejutan aukera gehio eonen diela gauzek itteko, orain arte oso frustagarria izan da.

### **Eskolen erreferentzia zentroyen antolaketan eraginik izango al du?**

Suposatzen da osasun mapa eta hezkuntza mapa erreforma berrira egokituko direla, beño hoi ez dao mahai gainen, oaingo. Hori gero etorriko da.

### **Soziologikoki zer iruditzen zaizu egin den banaketa?**

Ni aldekoa naiz. Elkartzea oso positiboa iruditzen zait esaterako bai guretzat eta baita goizuetarrentzat esaterako, beraien irteera naturala Hernani da, beño nafar administrazioaren menpe dago eta Araitzekin berdina gertatzen da. Elkartzeak onurak ekarriko ditu, eta soziologikoki etzait arrotz egiten, baina egia da neure eskualdea Basaburu eta Imotzekin ere ikusten dudala.

Alde positiboa eta negatiboa izanen du. Alde batetik kohesioa ekarriko du, beño bestetik, gainontzeko eskualdeekiko banaketa nabarmenagoa izanen da. Goizuetarrekin, leitzarrekin harremana sendotuko dugu, baina Imotzekin edo Irurtzunekin adibidez galdu eginen dugu.

## Eskola ordu bat doan AEK euskaltegian

Larraungo AEK euskaltegiak eskola ordu bat doan eskainiko du ekainaren 16an. Euskaltegiko eskola saioak nolakoak diren ezagutzen ez duten horiei probatzeko aukera emanen diete. Bi saio eskainiko dituzte maila bakoitzeko: 10:30etan eta 17:00etan oinarrizko mailakoei eta tarteko mailakoei zuzendua eta 12:00etan eta 18:30etan maila aurreratuko ikasleei zuzendua. Arratsaldean haur-zaintza zerbitzua eskainiko da. Eman izena ekainaren 14a baino lehen 948 604 704 telefono zenbakian edo larraun@aek.eus e-postaren bitartez.

Gainera, eskaintza berezia dute orain AEKn, ekainaren 19a baino lehen datorren ikasturterako aurrematrikula eginez gero %5eko deskontua eta ordainketa malguagoa eskaintzen du.

## 4. urteurrena ospatuko dute Satorzulon

Arribeko Satorzulo lokaleko kideek 4. urteurrena ospatuko dute ekainaren 10ean. Bertso bazkaria izanen da Iker Zubeldia eta Beñat Gaztelumendirekin, ondoremus eta toka txapelketa eta arratsaldeko zazpitan denak Betelura, Mailope Kantuz kontzertuan parte hartzera! Gero festak jarraitu egingen du pintxo poteoarekin eta goizaldera arte luzatuko da parranda Satorzulon. Bertso bazkarirako sarrerak dagoeneko salgai daude Beteluko ostatuan eta Surtidorean 22 eurotan.

- 14 -



## Ikasturte mugitua Aralar Musika Eskolan

Aralarko Musika Eskolako ikasle eta irakaslek hainbat kontzertu eskaini zituzten apirilko azken asteburuan. Valentzian izan ziren bertako musika eskolako ikasleekin eta azkeneko egunean abesbatzako ikasleek kontzertua eskaini zuten. Maiatzean Barañainen ospatu zen Nafarroako Musikaren Egunean ere parte hartu zuten. 1.300 haur inguru elkartu ziren. Horrez gain, ikasturteari amaiera emateko hainbat kontzertu eskainiko dituzte ekainean zehar.

M. Angeles  
Urrizalki

iragarkiak,  
berriak,  
eskelak...

Diario Vasco eta  
Diario de Navarrako  
Korrespontsala

948513056  
699179437

**Atabal**  
okindegia

Era askotako  
ogiak eta gozoak

Etxez etxe  
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...  
948513151

**MAITE**  
harategia

BERTAKO  
HARAGIA

Txistorra, txorizoa,  
saltxitxak,  
sukaldatutako platerak.

Ettxera eramateko  
zerbitzua ere eskeintzen  
dizugu.

Antigua Kalea Nº7  
31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88

maiteharategia@hotmail.com

## Txirrika elkarteak inauguratu dute Errazkinen



Apirilaren 30an inauguratu zuten errazkindarrek herriko elkarteak. Herriko etxeke lehen solairuan orain arte ostaru zena berriro eta elkarte bihurtu dute. Txirrika elkarteak jarri diote izena, garai batean belarra jaisteko herrian zeuden kabletako txirrikeri gorazarre eginez.

22 bazkide eta horietako batzuen bitartez gehitutako 15 elkartekiderekin sortu dute elkarteak.

Egun hartan, 29 lagun inguru elkartu ziren bazkaltzera eta orduetik hainbat otordu egin dituzte.



## Aisialdi programako jarduerak arrakastatsuak

Gizarte Zerbitzuak eta Euskara Zerbitzuak, eskualdeko udalen laguntzarekin, aisialdi programaren baita hainbat ekintza egin dituzte berriz ere Lekunberrin eta Larraunen. Aisialdi programa 12-16 urte bitarteko neska-mutilei dago zuzendua aisialdi osasuntsu eta euskalduna bultzatzeko asmoarekin.

Aurten sukaldaritza ikastaroa, ur festa, izotz pista txangoa, zinema eta graffiti tailerra eskaini dituzte. Graffiti tailerrean, gaztetxoek Plazaolako baioia margotu dute bi asteburuetan zehar.

Iosune Zabala teknikaria: *"Parte-hartzea oso handia izan da. Beraiek eskatutako ekitaldiak egin ditugu eta arrakastaren oinarria hori dela uste dugu. Aurten, Aritz Beteluko gazteei ere eskaini genien parte hartzeko aukera eta animatu egin dira. Lekunberrin egin zen ur festara gerturatu ziren Aritz-Beteluko gazteak, 16 osotara, eta gustora ibili ziren".*

Irailean abiatuko da programa berriz ere eta eskualdean hainbat ekintza antolatuko dituzte. Iosune: *"Eskertu nahi dugu gazteek egitasmoarekiko adierazi duten motibazioa eta konpromisoa (tailer bakoitzean 50 gazte inguru gerturatu dira), eta baita udalen inplikazioa ere, bestela ezinezkoa litzatekeelako programa aurrera eramatea".*



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean  
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta  
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO  
ELKANO  
S.L.**

Industrialdea, 11  
31870 Lekunberri - Nafarroa  
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792  
[bacalaoselkano@jet.es](mailto:bacalaoselkano@jet.es)  
[www.bacalaoselkano.com](http://www.bacalaoselkano.com)

## *“Araitzen lan eta bizi” batzordea bailararen etorkizunaren aldeko lanketa egiten ari da*

*Araitz bailararen etorkizuna ziurtatzeko eta bertako ekonomia sustatzeko hainbat lan ildo ireki ditu Araizko Udalak. Horretarako, “Araitzen lan eta bizi” batzordea sortu zuen herritarren parte-hartzeari esker.*

Martxoaren hasieran ekin zioten bilteari eta dagoeneko hainbat helburu adostu dituzte, besteak beste, nekazaritza, ostalaritza, komertzioa eta turismoa bultzatzea, eta horrekin guztiarekin batera, baita ondarea mantentzea ere. Osagai guzti horiek batzen dituen izendapen bat sortzeko asmoa dute.

Zenbait baserritarren ustez salmentek behera egin dute azkenaldian. Horregatik eta bertako

produktuen salmenta bultzatze aldera, Araizko denda, landetxe, jatetxe eta tabernetan stand bereziak jarriko dituzte bertako produktuekin eta jatetxeetan ere bertako elikagaiekin osatutako platerak eskainiko dituzte. Maider Agirrebarrena, Araizko Udaleko zinegotzia: *“Hemengo ekoizleek ekoizpen txiki eta jasangarri bat egiten dute, eta ekoizpen hori egiten duten baserritarrek beharrezkoak dira herriak bizirik mantentzeko eta ingurunea garbi mantentzeko. Horregatik garrantzitsua iruditzen zaigu baserritar horiek babesa dutela ikustea eta euren produktuak modu batera edo bestera saltzen laguntzea, beraien enpresa bideragarria izan dadin”.*

Araizko biztanleen batz-besteko adina altua da eta geroz eta gehiago dira hutsik gelditzen ari diren baserriak eta

erabilerarik ematen ez zaien lurak. Horregatik, egoeraren gaineko diagnostiko bat egitea erabaki du batzordeak. Galdetegi bat bidaliko zaie baserritarrei, horietako bakoitzak zer ekoizten duen, zenbat lur erabiltzen dituen, baserria zein egoeratan dagoen etab. ezagutzeko. Maider: *“Galdetegi horren bitartez jakingo dugu Araitzek zein lur poltsa dauken eta hemendik urte batzuetara zein poltsa izan dezakeen kanpotarrei eskaintzeko. Jende gaztea erakarri beharra daukeu herrita bizitzea etortzeko. Baserri askotan bi pertsona edo bakarra bizi dira eta izanen dira agian beste familia batekin bizitzea inportako ez litzaikeenak edo beraiek pisu batetan bizi eta baserria alokatzea gustatuko litzaikeenak ere. Araitzen lan eta bizi batzordeak zubi lan hori egin nahi du bidea errazteko”.*

*“Herri txiki hauei  
bultzada emateko  
garaia da”*

Gaur egun, kasu askotan baserritar batek hiru baserrietako lurak erabiltzen ditu eta horietatik onenak baino ez, besteak zikintzen uzten ditu. Gallur Zubillaga, Araizko Udaleko alkatea: *“Gelditzen diren hiru edo lau baserritarrek ezin dituzte herriko lur guztiak ondo zaindu, eta erabiltzen ez diren horietan pro-*





*duktu osasungarriak ekoizteko aukera egon daiteke. Bertan ekoiztu eta bertan saldu. Lur poltsa horrekin jende gaztea erakarri nahi dugu, edo bertan dauden gazteak bertan gelditzera animatu”.*

Diagnostikoarekin osatuko dute zehazki bailaran ekoizten diren produktu eta eskaintzen diren zerbitzuen zerrenda. Udazken aldera azoka bat antolatze-ko asmoa ere badute, urriko azkene-ko igandean izanen da eta bailararen erakusleho gisa erabiliko da. Gallur: *“Hemengo komertzioekin dagoeneko hitz egin dugu, eta ideiak nahiko harre-  
ra ona izan du. Batzordearen helburua ez da inorri lan gehigarria jartzea, guk baliabideak eman nahi dizkiegu ber-  
takoei bertako produktuak eta zerbi-  
tzuak eskaintzeko, hemendik kanpora ere identifikagarria izanen den izenda-  
pen baten bitartez. Bailara osoa sartuko da, geografikoki bailara osatzen duten herri guztiak”.*

Ondareari eta turismoari dagokionez, bi ekimen egiteko lanean dabilta, ez dute turismo masiborik bultzatu nahi, baina jasangarria den heinean bailara kanpoan ezagutzeko eta kanpotarrei bertako ondarea ezagutarazteko baliabideak jarri nahi dituzte. Alde bate-  
tik, garai batean Malloetatik belarra botatzeko erabiltzen ziren kableetako bat berreskuratuko dute. Gallur: *“Gaintzen, Irumugarrieta azpian dagoen kable bat berreskuratuko dugu, baina ikusi egin beharko dugu Ingurumen Departamen-  
tukoekin eta posible den. Hori zen he-  
rriko kable nagusia, bertara kable asko iristen ziren eta handik kable nagusitik herrira iristen zen”.* Ekainaren 25ean, eguerdian, Intzako Orixenea baserriko kablean erakustaldi bat egingo dute.

Bestalde, herriz herriko bide zaharren ibilaldia ere antolatu dute irailaren 10erako. Iturraskarriko kideek uztai-  
lean bide zaharrak garbituko dituzte eta Araizko Udalak lanen zati bat diruz la-  
gunduko du. Irailerako prest izanen dira bideak. Maider: *“Araizko ibilia, haritza eta mendia jarri diogu izena ibilaldiari. Herri guztiak batzen zituen garai bate-  
ko bide sare bat daukagu bailaran eta horiek ezagutzeko eta turismoa aldetik*

*eskaintzeko sare hori indartu nahi dugu. Ibilaldia-  
ren egunean bi ibilbide proposa-  
tuko ditugu, 32 kilometrokoa eta 7 kilometrokoa. Ondoren bazkari bat egingen dugu bertako pro-  
duktuekin”.*

Ibilaldia sustatzeko as-  
motan argazki lehiaketa antolatu dute. Bailarako haritzik ederrenen argaz-  
ki lehiaketa. Ekainaren 15ean amaituko da argazkiak udala@araitz.eus e-postara bidaltze-  
ko epea (lehiaketan parte hartzeko arauak [www.araitz.eus](http://www.araitz.eus) atar-  
rian). Argazki lehiaketa irabazten duen harit-  
zean panel informatibo bat jarriko da haritzek bailaran izandako gar-  
rrantzia eta euren us-  
tiapenari eta erabile-  
rari buruz. Flashmob bat ere egin zuten joan den hilean, Dan-  
tzaren Egunean, ibilaldian parte hartzera animatuz.

Lan ildo horiek guztiak martxan jarri, bailarako produktu eta baliabideei merezi duten balioa ematea da helburua. Joan den hilean lan horretan lagun-  
tzeko bisita interesgarri bat izan zuten gainera. Joan Pas-  
solas Farreronsek mahai-  
nguru bat eskaini zuen turismo jasangarriari buruz. Maider: *“Batzordeko bilerak hama-  
bostean behin egiten ditteu, asteazkenetan, arratsaldeko 19:00etan. Herritarrei parte hartzeko gonbita lu-  
zatzen diegu, badelako garaia denak elkartu eta aurrera ateratzeko. Herri txiki hauei bultzada emateko garaia da, bestela desagertzera doaz!”.*



Argazkilaria: Jesus Elozegi





Zoriondu itzazu zure lagunak edo senitartekoak  
Mailope aldizkariaren bitartez!

# KuxKuxean



**Leire Intxaurreondo**  
Maiatzak 30, 18 urte.  
*Zorionak polita! Ederki  
pasa zure egunean, merezi  
duzu eta!  
Neska bikaina izaten jarrai  
dezazula!  
Muxu handi bat familia  
guztiaren partez.*

**Lorea Huarte Zubeldia  
Maddi Huarte Zubeldia  
Olaia Huarte Zubeldia**

*Lorea eta Maddik ekainaren  
9an 13 urte betetzen dituzte eta  
Olaiak 11an 11urte. Urte askota-  
rako Gastesikoen partetik!!!!*



**Eneko Oreja Altuna**  
Ekainak 23, 6 urte.  
*Aupa Eneko, txapeldun!!! Gure  
etxeko poza!! Segi horren bizkor eta  
alai. Muxu haundi-haundiet etxeko  
guztin partez! Hankak erre gabe in  
salto sutan eh!!!! Ongi pasa!!*



**Mari Jose Huarte Martija  
Iratzi Garmendia Huarte**  
*Mari Josek ekainaren 24an eta  
Iratzik uztailaren 2an urteak  
betetzen dituzte. Urte askotara-  
ko!!! Ongi ospatu zuen egunak.  
Gastesikoen partetik.*



**Zuriñe eta Goreti Estanga Jareño**  
Ekainak 16, 4 urte.  
Ekainak 30, 7 urte.  
*Zorionak bikote!!  
Segi orain arte bezain irrifartsu  
eta ongi pasa zuen egunetan.  
Muxu haundi bana, aita eta ama.*



**Jone Zabaleta Olasagarre**  
Ekainak 8, 14 urte.  
*ZORIONAK Lekunberriko  
Jone Zabaleta Olasaga-  
rreri. Ekainaren 8an, urte  
betetze eguna duzulako.  
Urte askotako eta 14 muxu  
haundi etxekoen partez.*



**Kaiet Eskamendi**  
Ekainak 16, 3 urte.  
*Zorionak Kaiet!  
Oso ongi pasa zure egunean  
eta muxu potolo bat zuretzako.  
Izarne, Egoi, aita eta ama.*



**Leire Lopetegi**  
Maiatzak 28, 20 urte.

*Zorionak Politta! Ondo pasa zure egunean eta ospatuko deu  
juerga ear batekin. Muxu handi bat kuadrillakoen partez!*



**Luana Bécares**  
Ekainak 23, 7 urte.  
*Etxeko politenarentzat... ongi-  
ongi pasa zure egunean eta  
muxu handi bat, Nicolás, ama  
eta aitaren partez.*



**Goretti Cestau**  
Ekainak 19, 47 urte.  
*Zorionak amatxo!! Ongi-ongi pasa  
zure eun hontan!  
Muxu asko aitatzko Maia eta Lorean  
partez.*

**Maia Eraso**  
Ekainak 4, 11 urte.  
*Zorionaaaak divasa! Ongi-ongi  
pasa zure eune! Muxu bat zure  
guraso eta ahizpen partez.*





## Kupittu ta Txokatu

Trikimalluet billatu zuen. Basoko putzuetean beittu eta bata bestean isla ikusiz itten zuen topo berriz, baño ispillue ispillu, eta putzun beittik erakartzen zittun parramurri hue harapatu nahiean putzu berean itto zeen biik.

Orduzkeo herriko gazteai malkoat ateatze omen zaie ezkerreko begin haize gorriek, ipar-mendealdetik helduen haize gordin horrek, jotzeon bakoitzean. Izan ee, malkoa baita basoko putzu hue. Malkoa baita bihotzeko putzu. Malkoa Kupittun biarren izena, malkoa Txokatuk eragitteon plazeran azken jariora.

Malkoa da putzu. Malkoak batzetto orduzkeo Kupittu eta Txokatu.

Kupittu da laun sentibera eta ixill hue. Barrungo emozioak ateatzetto bapatean, olatuet bezala sortzeo erraietan eta eutsin-eutsin daukezon koapillo hoi dena hasperen ixill bihurtzeo. Kupittu itten zaizo aurki bueltan etorriko dela jakinda re semeak eskuekin aio ittean kristaletik; kupittu itten zaizo semea sekule etortzen ikusiko eztozola jakinda re 'eutsi moteil, aurki haiz goekin' esan, kristal lodiei bizkar eman eta aurpeie jiratzean; kupittu itten zaizo kutsare erdi zopa paparretik beira eroita re berriz saiatzan den agureai launtza eskeñi eta ezetza jasotzean; kupittu itten zaizo oaindi zore erraietako oolez zikindue daun umetxoa bularrean jartzean; kupittu itten zaizo aurrekuen aurreneko notakin pareko launen oñek



muitzen hasten deen bakoitzean; kupittu itten zaizo hasieran dena lore zena sasiek jan dola ohartzan; kupittu itten zaizo errealoai papera kendu eta 'matte zattugu, amatxo' leitzean. Kupittu.

Txokatu da, berriz, bi launetan mari-erona zen hue. Parra txokatze zaizo lehertu arte jaten ai den apaldarra txupinazoa bezala airean ateakoala aitze zonean; 'Rejuassssss esaten zian Etarte zaharrak' goatuazteizuenean, birrattuna alaja aipetuz; txokatu saardoak bizkortutako laun lotsatie kantari hasten denean; parra txokatze zaizo eskutxoan atzean ikusezin bihurtzeala sinistatuta geldi-geldi geatzean umetxoa ikustean;

txokatu itteo 'attunak amonai esan zion: "Esta noche no hay función" esaldi mitikoa ateatzean bakoitzean familiko bazkaritan; parra txokatze zaizo ustez hitzaldi interesgarri hortan laugarren ilarako motille mukik ateatzen harrapatze zonean; parra txokatze zaizo behar ez ten garaian behar ez ten lekun azaldu eta usoak hegaazten dittozonean. Xelebrea da txokatu re, ezto asko irauten, baño bizi-bizi ateatzeizo barren go algarra hoi, uste eztozola eta naturaliki.

Parra txokatze zaizonean ta kupitze zaizonean nekez eutsikoiozo barrungo astinduei. Hurruna putzueten paretik patsatzean beittu ispillun, ea zein ageri zaizuen kupittu o txokatu.

Ta hau ezkerre, hau eskuñe, bukatua haize gorrien ipuñe.

**SASTRaka**  
auto 4x4

**Ibilgailuen Mekanika Orokorra**  
(azterketak, gurpilak, olio aldaketak,...)

**Baita Todoterrenoetan Espezializatua ere**  
(prestakuntzak, homologazioak, erreformak,...)

Industrialdea, 9 948.60.48.06 Iñigo  
31870 Lekunberri www.sastraka4x4.com

**M. Angeles Urrizalki**

iragarkiak,  
berriak,  
eskelak...

**Diario Vasco eta  
Diario de Navarrako  
Korrespontsala**

948513056  
699179437

**AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA  
· HARATEGIA ·**

**PATXI GALARZA**

Asteleheneetik larunbatera  
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00  
Igande eta jaiegunetan  
8:00 - 14:00

Irurtzun

**SAN MIGUEL**

Taberna-Jatetxea

Arribe

948 51 31 34

## Kultur ekitaldiz betetako hilabetea



Maiatza kultur ekitaldiz beteta izan dugu. Harkaitz Cano idazlearen solasaldiarekin eman zioten hasiera hileko kultur egitarauari. Hamar lagun elkartu ziren eta idazlearen "Beti oporretan" lana aztertu zuten. Bestalde, lehenengo asteburuan, bigarren eskuko azoka egin izan zen eta horrez gain kontzertu ugari izan dira, besteak beste Mendialdeko Gure Esku Dagok antolatutako herri galdeketa aldeko kontzertua eskaini zuten eskualdeko musikari eta abeslariak Kantinan.

## Ekainaren 17an ospatuko dute Larraungo Eguna

Allin izanen da, baina eguraldiz txarra eginez gero Aldatzen ospatuko dute larraundarrek bailararen eguna. Aurtengoan, antolatzaileek egun bakarreko egitaraua antolatu dute. Ekainaren 18an Mendialdeko Gure Esku Dagok deitutako Herri Galdeketa egingen denez, larunbarekin izanen da aurtengo ospakizuna.

**Hona hemen eguneko egitaraua:**

17:30 DANTZ JOLAS JAIA ANTZEZLANA ZIRIKA ZIRKUS KONPAINIAREN ESKUTIK.

18:30 GLOBOFLEXIA TAILERRA.

19:30 TRIKIDANTZ TALDEA.

20:30 BARRIKOTEA.

## Intzan antzerkia protagonista

Intzako Antzerki Festibala antolatu dute ekainaren 10en eta 11n. Larunbatean arratsaldeko 18:00etan ekingo diote jaialdiari Larri Portierren clown ikuskizunarekin, ondoren txokolata eskainiko dute eta iluntzeko 21:00etan *Alikate Kabareta* ikuskizuna izanen da *La gramola del amoren* eskutik. Igan-dean berriz, 11:00etan Sorabileko sormen taldeak sortutako "Intzantzerki hiria" izanen da eta ondoren, *Ali Baba* antzezlanaz gozatzeko aukera izanen da. Gainera, igande goizean zehar, Araizko produktuen azoka izanen da.



**TAXILON** Lontxo Otamendi Artola  
661 202 249 (9 plaza)  
E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

**SOTIL GARAJEA**  
BETELU  
948 513 007  
sotilgarajea@gmail.com

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA  
ARLOETAKO HORNIGAIK  
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA  
**URZUBI S.A.**  
Tel. 948 50 42 41 Lekunberri  
Fax 948 60 45 20 urzubi@hotmail.com

**GARAJA** Zura behar eta ordutegira moldatuko gara  
Mate erdi eta goi zikloetarako prestaketa  
Fisika Inglesa 948 504 450  
lengua kimika 64825352  
euskerá marrazketa teknikoá  
historia  
unibertsitate mailako ikasgaiak

## Dena prest, hemen da Mailope Kantuz

Ekainaren 10ean, gure aldizkariaren aldeko Mailope Kantuz kontzertua eskainiko dugu Beteluko plazan, arratsaldeko 19:00etan. Egun horretan bertan, Satorzulo lokaleko urteurren festa izanen da, beraz, bertan zaudetenak arratsalde partean hurbildu zaitezte Betelura. Eskualde osoko hainbat herritan sortutako taldeek eta Aralar Musika Eskolako ikasleek parte hartuko dute. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da kontzertua eta barra ere izanen da giroa berotzeko.



## Bide Berdeen Egunarekin batera Uitziko tunela ireki dute



Maiatzaren azkeneko larunbatean ospatu zuten Lekunberriko Plazaola geltokian Bide Berdeen Eguna. Plazaola Partzuergo Turistikoak hainbat ibilbide proposatu zizkien bisitariei egun horretan, 19 kilometro eta 4 kilometro arteko aukerak. Eguraldi bikaina egin zuen eta asko izan ziren oinez

nahiz bizikletaz Plazaolan ibili zirenak. Txikienentzako jolasak eta ikuskizunak eskaini zituzten eta artisau azoka ere izan zen.

Asteburu horretan bertan ireki zen Uitziko tunel luzea. Urte hasierako euriteek egindako kalteengatik itxita egon da ia hiru hilabetez, baina egokitze lanak amaitu dituzte eta berriz ere Plazaola bideak irekita egonen da Leitzarako noranzkoan.



**Lagunasesoria S.L.**  
**Fiskala**  
**Laborala**  
**Kontabilitatea**  
**Seguruak...**

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232  
[lagunasesoria@terra.es](mailto:lagunasesoria@terra.es)

**SAN MIGUEL**  
 gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099  
 Arribe-Atallu

**German Lasarte**  
**HARATEGIA**  
 Aralar kalea 9  
 Lekunberri  
 948504157

**OKM**  
**ABOKATUAK**  
 Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua  
 Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

## Ekainaren 18 bozka ematera hurbiltzeko dei egin die Mendialdeko Gure Esku Dagok herritarrei

*“Nahi al duzu Nafarroako herritarrok gure etorkizun politikoa modu askean erabakitzea?” eta baiezkoa bada, “Nahi al duzu Euskal Herri libre bateko herritarra izan?”. Horiek izanen dira ekainaren 18ko herri galdeketa erantzun beharreko bi galderak.*

Apirilean ekin zioten Mendialdeko Gure Esku Dagoko kideek galdera zein izan zitekeen aztertzeari. Prozesu parte hartzaile baten bitartez hartu da erabakia. Herritarren artean aukera ezberdinak aztertu ondoren, joan den maiatzaren 21an Leitzan egin zuten agerraldi publikoan eman zuten galdera zehatzen berri. Ia 300 lagunengana babesarekin herritarrei parte hartzeko eta euren boza emateko dei egin zieten, “Inoiz eduki ez duten aukera bat delako. Euskal Herriaren etorkizuna erabaki ahal izateko inoiz egikaritzetik izan ez duten eskubidea delako”.

Ekainaren 18an Mendialdea elkarteak osatzen duten zortzi udalerrietako 6.630 pertsona daude bozkatzera deituta, Goizueta, Arano, Leitza, Areso, Larraun, Lekunberri, Araitz eta Beteluko herritarrek. Egun horretan, bakoitzak bere udalerrian emanen du bozka. Larraundarrek eta lekunberriarrek Lekunberriko udaletxe parean bozkatuko dute, beteluarrek herriko plazan eta araitzarrek Arribeko Elorri elkartearen. Bozkatzeko mahaiak goizeko bederatzietatik arratsaldeko zortzietara izanen dira zabalik.

### E18an bozkatzera joan ezin dutenentzat beste hitzordu batzuk ere eskainiko dituzte.

ARAITZ	Ekainaren 7an	18:00-21:00	Arribeko plazan
BETELU	Ekainaren 9an	18:00-21:00	Beteluko plazan
LARRAUN	Ekainaren 9an	17:30-18:30	Uitzin
		19:00-20:00	Gorritin
		Ekainaren 10ean	10:00-11:00
	Ekainaren 11ean	11:30-12:30	Astizen
		13:00-14:00	Oderitzen
		16:00-17:00	Mugiron
		17:30-18:30	Arruitzen
		19:00-20:00	Etxarrin
		10:00-11:00	Azpirotzen
		11:30-12:30	Errazkinen
		13:00-13:30	Lezaetan
		14:00-14:30	Albiasun
		16:00-17:00	Iribasen
17:30-18:30	Baraibar		
19:00-20:00	Aldatz		
LEKUNBERRI	Ekainaren 10ean	10:00-14:00	Lekunberriko udaletxe aurrean
	Ekainaren 11ean	10:00-14:00	Lekunberriko udaletxe aurrean



Bozka emateko hiru baldintza bete behar dira: Egunean bertan 16 urte edo gehiago edukitzea, bertan erroldaturik egotea eta bozkatzerako orduan nortasun agiria aurkeztea (nortasun agirian ez badu hautes-guneari dagokion udalerrriaren izena jartzen, errolda agiria erakutsi behar da).

Maiatzean zehar hainbat ekitaldi egin dira herriz herri, esaterako, Lekunberriko Kantinan Gure Esku Dago ekimenaren aldeko kontzertua eskaini zuten eskualdeko hainbait musikari eta abeslari hilabeteko kultur egitarauaren baitan. Leitzan mahai-inguru ederra eskaini zuten, EAJko kidea den Iñaki Zarrakoak, Floren Aoz politikari eta idazle nafarrak eta ekimeneko bozeramailea den Zelai Nikolasek.

Bestalde, ekimenetik abesti bat ere sortu dute giroa berotzen joateko. La Jodedera taldeak sortu du abestia eta Oskar Estangak jarri dizkio hitzak. Eskualdeko musikari, abeslari eta musika ekizleek parte hartu dute. Gainera, eskualdeko lau udalek ekimenari babesa adierazten dion mozioa onartu berri dute.



Leitzan E18ko galderak aurkeztu zituzten eta giroa berotzen joateko aurki izanen da kalean herriz herri grabatutako bideoak.



## ZER ESANGO ZENIOKE EKAINAREN 18AN BOZKATZERA JOAN ALA EZ ZALANTZAN DAGOENARI?

**Iñaki Zarrako:** “Bera badala partaide bat eta partaide izanik parte hartu behar duela, bestela uko egiten diola gizarte horrek zer pentsatzen duen jakiteko aukerari, eta pena bat dala berak dauken iritzie beste guztik ez jakitea”.

**Zelai Nikolas:** “Nik esango nioke erabakitzeak aukera ematen digula ilusioa izateko eta etorkizun hobe bat irudikatzeko, bakoitzak berea, baina erabakitzeak ate berriak zabaltzen dituela, eta ez erabakitzeak gauden egoeran uzten gaituela”.

**Floren Aoz:** “Nik azpimarratuko nituzke gure kultura politikoan, eta bereziki Nafarroan oso errotuta dauden bi kontzeptu, batzarra eta auzolana. Nik uste dut denoi gustatzen zaigula edo baliatu behar genukeela batzarrean erabakitzeak aukera hori baino horretarako ere auzolanean parte hartu behar da, eta herriz galdeketa gauza biak batera dira. Eta ez duzue soilik herriz galdeketa horretan parte hartzeko eskubidea, neurri batean baita obligazioa edo ardura ere. Besteekin bizi gara, besteekin bizi nahi dugu eta elkarrekin bizi-zeko eskubideak ditugu baina ardurak ere bai eta arduren artean denok horren parte izatea auzolanean erabakitzerakoan”.



## 150 pertsona inguru Euskal Herriko Kontakt Topaketan

Euskal Herrikoak izan ziren Lekunberriko kiroldegian egin zen Kontakt Txapelketan part hartu zuten lagun gehienak, baina Frantzia, Katalunia, Madril, Asturias eta penintsulako beste hainbat txokotatik ere etorri ziren, tartean baita 8 haur ere. "Baga biga higa, laga boga sega, zai zoi bele, topaketa Gu!" izan zen dantzarako asteburuan zehar erabili zuten leloa, dantzatzeo elkartzegatik sutan erre zituzten arbasoei omenaldia egin zieten. Oskar Estanga izan da parte hartzaileetako bat: "Kirlodegian gidatutako dantza saio batzuk egin genituen, baita dantza libre ere. Ume eta gurasoentzako Contakids ere egon zen larunbat eta igande goizetan. Gauean Kantinan dantza festa ederra egin genuen ere, eta igande goizean, herriko plazan ekital-



di publiko bat ere egin genuen. Eskertzekoa izan da Plazola kiroldegiko eta udaleko jendearen jarrera, erraztasunak eman baitzizkigute. Maitasunez eta errespetuz, bitzta ospatzea izan da Lekunberri egin duguna topaketa honetan".

## Aralarko Ibilaldia ibilbide berrituarekin dator

Aralarko Ibilaldia izanen da ekainaren 11n. XV. Edizioa izanen da aurtengoa. 33,4 kilometroko ibilbidea egingen dute. Lekunberrietik irtengo dira goizeko zazpietan, handik Albiasu aldera joanen dira eta Baraibarko antena ingurutik Errazkingo bordetara pasaz Ttutturera igoko dira. Gero Belokitik Albira jaitsi eta ondoren Artxuetatik berriro ere Ata bailaran barna Lekunberriera jaitsiko dira berriro. Ibilaldiaren amaieran paela eta kamiseta bat emanen dituzte opari. Bi anoa-postu izanen dira, 14,5 kilometroan eta 21,9 kilometroan. Dagoeneko izen-emateko epea zabalik dago, [www.mendizmendi.com](http://www.mendizmendi.com) atarian 12 eurotan eta egunean bertan ere izena emateko aukera izanen da 15 euroren truke.



**Bar Ainhoa**

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak **Tostadak mermeladarekin** eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera  
**Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)**  
 948 504 077 • 639 778 851 • [aitziberalf@hotmail.com](mailto:aitziberalf@hotmail.com)

**ekin**  
 rotulación  
 948 85 32 79

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.  
 HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:  
 948 50 43 31  
 Lekunberri

**aitz berri**

edertasun zentroa

Lako beikoa  
 Betelu 31890  
 948 513 083  
 696 732 290  
[aitzberri@hotmail.com](mailto:aitzberri@hotmail.com)



## Beti Kozkor hirugarren mailara igo da lehen aldiz

Joan den maiatzaren 6an, Alesbesen Alesvesen kontra (2-3) irabazi eta Nafarroako autonomika mailako txapeldun bihurtu zen. Erregionalen liga amaitzeko lau jardunaldiren faltan, 66 punturekin autonomika kategoriako onenak izan dira eta jada hirugarren mailan daude. Rodri Fernández eta Jon Ander Unanua entrenatzaileekin eta Alvaro Etxarri, Beti Kozkor klubeko kirol koordinatzailearekin izan gara.

Orain dela lau urte iritsi zen Rodri Beti Kozkorrera. Bertako jokalaria taldea uzten hasiak ziren eta arazoak zituzten taldea osatzeko. Rodri: *“Lehenengo urtea uste baino hobea izan zen eta preferente mailara igo ginen eta erregionaleko talde bat osatu genuen. Iruñeko jokalariai ekarri genituen maila igotzeko eta beheko taldeetatik zetozen jokalariek ere maila altuagoko talde batean jokatzeko aukera izan zezaten eta autonomia mailara igo ginen”.*

Iaz ez zuten denboraldi hasiera ona izan, baina bigarren bueltan bigarren talde onena izan zen eta aurten Jon Ander Unanuak erakutsitako metodologiari esker hein handi batean hirugarren mailara igotzea lortu dute. Jon Ander klubeko presatzaile fisikoa eta bigarren entrenatzailea da, bera arduratzen da entrenamenduak kudeatzeaz eta metodologia egokiena garatzeaz. Jon Ander: *“Iaz Gaztela-Leongo hautatzailea izandako Chema Izquierdorekin ibili nintzen eta asko ikasi nuen planifikazioari eta metodoei buruz. Etxean jokatzeko ditugun partidu guztiak bideoan grabatzen dugu eta ondoren egindako akatsak aztertzen ditugu, aurkariaren jokatzeko modua aztertu eta horren arabera jokaldiak prestatzen ditugu eta gure jokalaria bakoitzari euren beharretara egokitutako presaketa plana jartzen zaio”.*

Alvaro: *“Aurten, Sakana, Ultzama, Zilbeti eta inguruko jokalariai hasi dira eta jada Iruñeko jokalaria gutxiago ditugu, 25 fitxetatik 14 ingurukoak dira. Bere garaian gai polemikoa izan zen, hemen taldeak herriko jokalariekin osatutakoak izatera ohituta gaudelako eta halako taldeetan askotan jokalaria onenak jubenetara iristen direnean maila altuagoko taldeetara alde egiten dute. Eta guk geure jokalariei bertan lehiatzeko*



*aukera eskaintzeko apustua egin genuen. Eta orain futbol zelaia Lekunberrin egon arren zonaldeko futbol kluba bilakatu da, gure eskualdeaz gain, Leitzaldea, Basaburua, Sakana eta inguruko hainbat udalerrietako jokalaria biltzen dituen kluba”.*

Abuztuaren 19an hasiko da denboraldia baina uztailaren 20an jada gogor entrenatzen hasi beharko dute jada hirugarren mailan dauden jokalariek. Egoera berriak ez du klubaren egituraren aldaketarik ekarriko, baina goreneko taldean 25 jokalaria izatetik 23 izatera pasako dira, eta horietatik 6, 23 urtetik beherakoak izan beharko dira arautegia bete ahal izateko. Rodri: *“Astean bitan entrenatzen genuen orain arte eta hemendik aurrera gehiago entrenatu beharko dugu, baina motibaturik gaude”.*

### Futbol kanpusa

Ekainaren 26tik 30era bitarte, 10 eta 15 urte arteko haurrei zuzendutako kanpusa antolatu du Beti klubak. Saioak goizeko bederatzietatik ordu bietara izanen dira eta teknikak hobetu, jokoak eta txapelketatxoak egiten dituzte. Ekainaren 21ean amaituko da izen-emateko epea Plazaola kiroldegian.

GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70  
www.tanatoriosirache.es

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-  
LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

  
**urrutia**  
enea

etxeko hestekiak  
**LEKUNBERRI**

**OTXOTORENA**  
okindegia

**ARRIBE** 

**ADIII TLF BERRIA:**  
948 51 30 32

 panaderia okindegia  
**GALBURU eco**

*Egurrezko laboreko ogi ekologikoa*

Aldezaharra 50 LEKUNBERRI 31870  
948 50 40 42

## Intza-Ttutturre Kilometro Bertikalean izen emateko epea zabalik

Urtarrilean elkarrizketatu genituen probaren antolatzaileak eta orduan lasterketa finantzatzeko zituzten beharrak gaituztuta dagoeneko ireki dute Intza-Ttutturre Kilometro Bertikalean izen emateko epea. Irailaren 2an izanen da lasterketa Intzan. 3,85 kilometroko proba izanen da 963ko desnibelarekin. Nafarroako Federazioko Banakako eta Taldekako Txapelketako postuak sailkatuko dira bertan. Antolakuntzako kideak diren Kristina Askarai, Iñaki Alvarez, Imanol Estanga eta Xabier Igoarekin izan gara.

**Noiz hasi zineten Intza-Ttutturre Kilometro Bertikala lagunduko zuten babesleen bila?**

**Kristina:** Eguerrin aurretik aittu ginen gure asmoen berri zabaltzen eta otsailean erosle, enpresa eta ekoizleekin izan ginen eta kriston laguntza jaso de, oso pozik gaude.

**Hori zen hasieran zenuten kezka, nahikoa finantziario lortzera iritsiko ote zineten...**

**Kristina:** Bai, baina jendea bere borondatea jartzen hasi zen eta uste baino harrera hobea izan du probak.

**Iñaki:** Bailarako nahiz kanpoko jendeak

lagundu gaitu, abentura honetan laguntzera inoiz animatuko ez zela uste genuen jende askok lagundu gaitu.

**Kristina:** Guk aurrekontu bat giñeuen eta aurrekontu hoi nahiz eta ahal bezain beste estutu, bikoiztu egin zaigu kasik.

**Iñaki:** Aurrekontua 6.000-7.000 eurotara igo zitzaigun eta gastuak boluntarioen laguntzari esker ahalik eta gehien murriztuz.

**Xabier:** Gure hasiera bateko asmoa aurten proba hau esperimendu gisa antolatzea zen, zer moduz zijoan ikusteko, beño gero, Nafarroako Txapelketan sartzearekin beharrezkoak ziren baldintza batzuk bete behar ziren eta kolpean

etorri zaizkiu gastuak eta konturatu ginen kriston dirutza zela.

**Kristina:** Nafarroako Federazioan izan giñun bileran Nafarroako Txapelketa gureru ekartzeko egin ziguten eskaintza aukera haundie da gutzako, lehenengo aldie izanik, horri esker, probak, izen haundigoa hartuko dula uste de.

**Mota guztietako babesleak lortu dituzue...**

**Imanol:** Dendak, ekoizlek, dentistak, margolarik, txapistek... denetatik.

**Iñaki:** Eta baita bankuak ere, gure babeslerik handiena La Caixa izan da eta hori dela eta probak helburu solidario bat ere badu.

**Kristina:** La Caixaren diru-ekarpena jaso ahal izateko guk beste entitate edo elkarte bati laguntzeko baldintza bete behar genuen. Laguntza hori inguruko norbaiti ematea pentsatu gendun. Izen-emate bakoitzeko bi euro *Sanfilippo* gaixotasuna duen Ibarako Oier Iribarrenentzat izanen dira. Oierren gurasoak laguntza beharrean daude eta Juneren Hegoak elkartearen bitartez bideratuko dugu laguntza. Eta horri esker, jaso dugun diru-laguntza handiena La Caixaren eskutik izan da.

**Iñaki:** Oso pozik gaude, ikaragarria izan da proba honek izan duen harrera. Bestetik, 150 kamiseta atera ditugu eta horrek ere lagunduko digu. Norbaitek erosi nahi izanez gero jar dadila gurekin harremanetan.

**Dagoeneko izen emate epea ireki duzue...**

**Iñaki:** Bai, maiatzaren 1ean ireki genuen eta proba eguna baino egun lehenago amaituko da epea [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) atarian. Korrikalari kopurua 200 lagunera mugatu dugu. Nire ustez



Probako antolatzaileetako batzuk: Iñaki Alvarez, Imanol Estanga, Kristina Askarai eta Xabier Igoa.

ez gara kopuru horretara iritsiko, hauek baietz diote, ikusiko dugu!

#### Proba irailaren 2an izanen da...

**Iñaki:** Bai, goizeko hamarretan hasiko da proba Intzan. Ibilbidea garai batean artzainek eta abeltzainek abereak Aralarrera igotzeko erabili ohi zuten ia berdina da. Proba lehiakorra izanik, zati aldapatsuago bat sartu dugu, %70eko desnibela duena. Lehen, segan ibiltzen zirenean eta belarra kablean jaisten zuten garaian, dena garbi egoten zen baina orain irristakorra izan daitekeen belar asko dago eta ibilbidearen zati bat garbitu egin beharko dugu.

#### Eta auzolanean garbitzeko jendearekin hitz egin al duzue?

**Imanol:** Ez, oraindik ez.

**Iñaki:** Ibilbidea uztailean garbituko dugu, baina ez dut uste arazorik izanen dugunik boluntarioak topatzeko, Aratzen eta Betelun jendearen parte-hartzea izugarria izaten da.

**Xabier:** Baina bidea nahiko garbi dago eta ez da horrenbesteko lana izanen.

#### Kanpoan pixkanaka proba ezagutarazten ari al zarete?

**Iñaki:** Bai, sare sozialen bitartez gehien bat. Igandean adibidez, Xabier eta biok lasterketa batean izan ginen eta Kristina han ibili zen kartelak jartzen, baina oraindik goizegi da.

**Kristina:** Apirilaren 8an irteera bat ein giñun Arribetik atea eta Uba aldera. Dozena bat juntatu giñen. Ekainaren 17an beste bat itteko asmoa daukeu jendeak probaren ibilbidea ezagutzeko. Goizeko bederatzietan ateako ga.



“Uste baino harrera hobea izan du probak”

#### Probaren egunerako ere jendearen laguntza beharko duzue...

**Imanol:** 30 lagun inguru, ez dira asko behar, lasterketa motza izanik...

**Iñaki:** Guk geneuka arazorik handiena aurrekontua aurrera ateratzea zen, bazkirenen bat edo dirua lortzeko zerbait antolatu beharko genuela pentsatzen

genuen, baina azkenean, babesleekin, kamiseten salmentarekin eta izenemateekin lortu dugu. Kilometro bertikalean ez da horrenbeste jende behar antolakuntzarako. Ia lau kilometroko lasterketa da eta ez da beharrezkoa anoa-postuak jartzea. Guk bakarra jarriko dugu Aginako iturrian.

#### Eta fisikoki zer eskatzen du halako proba batek?

**Iñaki:** Edonork parte hartu lezake, ez da behar errekorrik egiterik, zure buruarekin borrokatu baino ez da egin behar. Fisikoki pixka bat prestaturik egon behar duzu eta lehen minutuan nekatu gabe igo, zure denbora eta erritmoa kontrolatzen eta neurtzen jakin. Proba gogorra da, lehenengo lasterkaria 35 minutu inguruan ibiliko da, baina izanen dira ordu eta laurdenean eginen dutenak ere. Helburua gailurrera iristea da. Korrikalariak banan-banan irtengo dira. Eta bitartean goizean zehar Intzan bertako produktuen azoka izanen da.

**Xabier:** Zati malkartsuena gogorra da, baina mantso mantso igoz gero...

**Imanol:** Fisikoki ongi egon behar duzu, baina gozatzuz egin daitekeen proba bat da.

**Kristina:** Lasterketa honekin, gure arbasoak, Malloetan lanean aritu ziren bailara hontako gizon eta emakumeak omendu nahi ditugu. Laserkariak garai batean belarra ebakitzen aritzen ziren ingurutik igoko dira. Beraz, ibilbideaz gozatzeaz gainera, gure arbasoek malda horietan egiten zuten esfortzua sentitzea ere nahi genuke.

Informazio gehiago:

[www.intzattuturrekb.eus](http://www.intzattuturrekb.eus)

**Hostal Betelu**

Eguneko menua,  
karta, plater  
konbinatuak eta pizza  
goxoak

Etorri eta  
on egin!

Erreserbak:  
948513026  
618557889

**AMAIRU bar**

GTXKO PIZZAK,  
KOPA BERGIZIAK

948504352

**Kantina Rock**

948  
60  
48  
21

**KANTINA**

bokatak, platerak eta...musika.....

**LARRAUN**

GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ  
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

**Gruas y Talleres LARRAUN S.L.**

Lekunberriko industriagunea,  
21. nabea  
31870 Lekunberri  
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356  
Telefona: 948 507 229  
Faxa: 948 507 281  
gtlarrapun@gmail.com



## *Sei txapelketa eta hiru liga patroiei lanetan*

*Gaintzako Laiene Izagirrek hirugarren urtea du Tolosako TAK-Oria arraun klubean. Hamalau urte ditu eta patroiei aritzen da klubeko kategoria ezberdinetan. Aurten denboraldi ederra egin du.*

Ikasturte hasierarekin hasten dira arraunean lehen ligarako prestatzen eta maiatza bitarte txapelketetan aritzen dira. Laiene patroiei aritzen da eta aurten oso emaitza onak lortu dituzte berak zuzendu dituen taldeek. Laiene: "Aurten infantil mailako neska eta mutilen taldeekin, kadete mailako neskekin eta senior mailako neskekin atera naiz".

Astean hirutan edo lautan jaisten da Tolosara entrenatzera eta ordu eta erdi edo bi orduko saioak egiten dituzte. Patroiak fisikoki arraunlariek baino ariketa

gutxiago egin arren berebiziko garrantzia du esaterako patroien beraren pisuak. Bai neska eta bai mutil infantil eta kadetetan patroien pisua librea da. Baina jubenil eta senior neskatan gutxienez 50 kilo behar ditu eta mutiletan aldiz, 55 kilo. Pisu horretara ez bada iristen, gehienez 10 kiloko "lastrea" jar dezakete. Laiene: "38 kilo pisatuz gero ez dizute ateratzen uzten. Gertatu ohi da gramo gutxi batzuen faltan egotea, batzuk ura edaten ibiltzen dira estropadaren aurretik gutxieneko pisura iritsi ahal izateko".

# “Uste baino ardura haundigoa daukeu patro ibiltzen ganok”



## Infantil mailako neskekin hiru txapelketetan lehenengo postua eskuratu duzue...

Bai, aurten talde horretako arraunlari guztiak berriak ziren eta hasi ginenean laugarren postuan gelditzen ginen eta pentsatzen giñun ez giñula ezer lortuko, baina azkenen asko hobetu deu eta Hibaika atzen utzi deu. Infantil nesken kasuan, ez dago aukerarik Espainiako Txapelketara joateko.

## Eta mutilen kasuan bai?

Bai, ez dut ulertzen zergatik, kontu matxista iruditzen zait.

## Lorpen horiez guztiez gain, sari berezi bat ere jaso duzu aurten...

Gipuzkoako Txapelketan infantil mutilekin egindako ziaboga onenaren kopa eman zidaten. Gipuzkoako txapelketan hori ere baloratzen dute, ziaboga ahalik eta estuen itea, horrela buelta azkarrago ematen zaio. Askok uste due errexagoa dela, baino ez du zertan, ardura asko daukeu patro ibiltzen ganok. Aukera asko dituzu akatsak iteko, adibidez beste batel batekin txokatuz gero errua patroarentzako izan ohi da.

## Halakoak gertatzen dira?

Gipuzkoako Txapelketan, guk Hibai-

kakin, Erreteriko taldekin, giñun pikea infantil mailako nesken taldearekin. Binaka atera ginen, lehenbizi Zumaia eta beste bat eta atzetik Hibaika eta gu. Eta Zumaia bueltan zetorrela Hibaika Zumaia txokatu zen eta horrek asko poztu gintuen. Kar, kar, kar...

## Zein taldetan aritzea egiten zaizu zailen?

Senior mailako neskekin, zaharragoak dira eta hasieran lotsa ematen zidan.

Baina asko erakutsi didate, asko ikasi dut, batez ere Nerea Perezekin, berak hiru Kontxa irabazi ditu patro lanetan San Juanen trainerakin eta asko lagundu dit. Senior mailan Hernanin kontra daukeu pikea, San Juanen kontra ezin deu ezer ein.

## Eta estrategia berezirik erabiltze duzue?

Patroiak geroz eta pisu gutxiago izan askoz hobe da batelari pisu gutxiago jartzen diozulako eta arraunlariekin berdin. Irteeran azkarra egiten dugu eta gero eritmoa normal mantentzen saiatzen gara, azkarregi edo mantsoegi joan gabe. Seniorrean bi kilometroko probak izaten dira eta ezin dezu dena azkar in, zure eritmoa eraman behar dezu.



## Sei txapelketa eta hiru liga egin ditu aurten:

-Infantil neskek:

Gipuzkoako Liga Txapelketan 1. postua  
Gipuzkoako Txapelketan 1. postua  
Euskadiko Txapelketan 1. postua

-Infantil mutilak:

Gipuzkoako Liga Txapelketan 1. postua  
Gipuzkoako Txapelketan 3. postua

-Kadete mutilak:

Euskadiko Txapelketan 2. postua

-Senior mailako emakumezkoak:

Gipuzkoako Liga Txapelketan 4. postua  
Gipuzkoako Txapelketan 4. postua  
Euskadiko Txapelketan 6. postua



## BETELUKO JAIK 2017

**Ekainak 28, Asteazkena - Herritarren eguna**

18:00 Txupinazoa  
19:00 Frontenis finala  
21:00 Herri afaria + (antzerkia)  
00:30 Fund & go.

**Ekainak 29, Osteguna - Pedro Deunaren eguna**

7:00 Auroroak  
8:00 Diana  
11:30 Meza nagusia  
12:30 Pilota finala  
17:00 Gazteen arteko herri kirolak  
18:15 Puzgarriak plazan  
18:30 Izen gabea (Aralar Musika Eskola)  
19:30 Tortilla lehiaketa. Ondoren txoznan musika  
0:30 Dj Txoko

**Ekainak 30, Ostirala - Umeen eguna**

11:30 Ume jokoak  
16:30 Zartari/atxur/katiuska tiraketa  
18:00 Mus + partxis + funtbolina + goitibera.  
Txokolatada, dantza eta batukada.  
19:15 Ingurutxoa  
19:30 Azken urteko umeen ongietorria.  
19:30 Zesuma  
21:30 Zezen suzkoa ondoren herri afaria.  
0:30 Zesuma  
2:30 Ohian Vega

**Ekainak 1, Larunbata - Gazteen eguna**

13:00 Bertso bazkaria 5 (Uxue Alberdi + Aitor Sarriegi)  
17:00 Puskabiltza elektrotxuflaren eskutik. Guarrolinpiadak.  
20:00 Trikizio  
21:30 Zezen suzkoa  
1:00 Trikizio  
3:00 Xabi dantzaleku

**Ekainak 2, Igandea - Azken eguna**

11:30 Meza nagusia  
12:00 Umeen pilota finala  
18:00 Sagardo dastaketa  
18:00 Egan  
20:00 Sari banaketa  
21:30 Traka finala

## MUGIROKO JAIK 2017

**Ekainak 29, Osteguna (San Pedro Eguna)**

11:00 Meza Nagusia patroiairen omenez.  
12:00 Hamaiketako ostatuan.

**Ekainak 30, Ostirala**

20:00 Suziria.  
21:30 Herri afaria.  
24:00 Musika.

**Uztailak 1, Larunbata**

12:00 Erronda Bentetatik.  
18:00 Mus txapelketa.  
20:30 Barrikotea.  
24:00 Musika.

**Uztailak 2, Igandea**

12:00 Erronda herrian barna.  
17:00 Pilota partiduak.  
19:00 Txokolatada.



**Mailope kantuz**

**Ekainak 10**  
**Beteluko plazan**  
**19:00tan**

Herri desbordinetan osatutako hainbat lagun talde, eta Aralar Musika Eskola, denak batera kantuan, MAILOPEren alde. Taberna ere izango da.



**ALIPROX**  
Lekunberri  
*janaridenda*  
hamabostaldi  
eskaintza bereziak

*Iñigo Garaioa*  
**MARGOLARIA**



696 658 288  
**LEKUNBERRI**



**SUAKONTROL**  
**LEKUNBERRI**

*Suaren kontrako plakak*

Oztegin kalea 25,  
Lekunberri  
948 60 48 96 (Tel.)  
948 60 45 16 (Faxa)  
suakontrol@grena.es  
www.grena.es

**IORTIA** CLINICA DENTAL HORTZELINAK

Juanjo Gaite García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317  
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005  
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·  
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

## ekaina

**3** Euskal Herria Mendi Erronka.

**10** Mailope Kantuz, arratsaldeko 19:00etan, Beteluko plazan.

**11** Adrian Costaren kontzertua 19:30tan, Kantinan.

**11** Aralarko XV. Ibilaldia.

**17** Larraungo Eguna.

**18** Mendialdeko Gure Esku Dagok deitutako herri galdeketa.

**23** San Joan suak.

**24** Pilotarien Batzarrareb festa Lekunberrin.

agenda

### SAN JOANAK 2017 - LEKUNBERRI

#### Ekainak, 23, ostirala.

17:30 Tirikitrauki dantza taldea.

21:00 Suteak eta musika.

#### Ekainak 24, larunbata.

9:00 Diana txistulariekin.

12:00 Haurren pilota partidak.

14:00 Herri bazkaria eta bingoa. Txartelak udaletxean izanen dira salgai.

14:00 Jubilatuen bazkaria Ayestaran hotelean eta ondoren musika.

16:30 Udaberriko pilota txapelketako finaleko partidua.

20:00 Sorginen gaua. Afaria eta musika herriko plazan (ogitartekoa eta salda 4 euroren truke).

#### Ekainak 25, igandea.

11:00 Munduko gastronomia dastatzeko aukera herriko plazan eta haurrentzako talo tailerra.

### SATORZULO 4. URTEURRENA

14:00 Bertso bazkaria Iker Zubeldia eta Beñat Gaztelumendirekin.

18:00 Mus txapelketa topaketa

19:00 Mailope Kantuz Beteluko plazan

20:30 Pitxo poteoa

00:00 DJ Satorzulo

## merkatu txikia

### SALGAI

- Lekunberrin 90 metro kartratuko etxe adosatua salgai, 3 logela, sukalde, egongela, bi bainu, garajea eta terraza. 190.000 euro. Harremanetarako: 679 631 725 (Aitor).



### BESTERIK

- Pianoa jotzen hasi nahi baduzu, nire etxean, Lekunberrin, klaseak eskaintzen ditut. Anima zaitetz eta deitu 636 390 356 telefono zenbakira. (Luci).

- Volkswagen California Coach T4 salgai. 2.5Tdi 5 zilindroak 102cv. Nazionala. 340.000Km. Oso ongi zainduta, beti garagen. Extra askoekin (bizikletak eramateko euskarria, toldoa, aurreratze sistema, berogailu estatikoa, bihurgailua...). Argazki eta informazio gehiagorako jarri zaitetz harremanetan: 630 041 480.



## Kirol astea ekainaren 1etik 3ra bitarte

#### Ekainak 1, osteguna

19:30-21:00 Spinni-Thon! Dohainik Lekunberrin (izenematea beharrezkoa da, 948 50 73 77).

#### Ekainak 2, ostirala

Kirol eskolen jaia eta erakustaldia Lekunberriko kiroldegian.

18:00 Igeriketa sinkronizatua .

18:15 Judo.

18:30 Zumba.

18:45 Kirol gimnasia.

19:30 Eskubaloi partidua (Beteluko nesken taldea Tolosa-koen aurka).

#### Ekainak 3, larunbata

9:30tan aurrera Euskal Herria Mendi Erronka Arribetik pasako da.

11:00 Beti Kozkor Eskola Txikiaren jaia Lekunberrin.

12:00 Nesken pala txapelketako finalaurrekoak Lekunberriko frontoian.

12:30tan EHME Lekunberritik pasako da.

16:00 Gaztetxoaren txirrindulari lasterketa

18:00Futbol 7 Txapelketako 1. jardunaldia.

# Etorkizuna >erabaki

Ekainaren 18an  
hemen gertatuko dena,  
ez da beste ekimen bat gehiago izango.  
Ekainaren 18an  
historiaren parte izango gara.  
Ekainaren 18an  
zer izan nahi dugun erabakitzera goaz.  
Gure etorkizunaren jabe egitera goaz.  
Gure eskubideak gauzatzera goaz.  
Ekainaren 18an  
**ez zaitetz etxean gelditu!**  
**Izan zaitetz zu ere protagonista!**



nemen asudei **18.11**  
Mendiola

# BOZKATU